



ESTATISTIKA
ORGANO
ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko
Estatistika Organo Berezia



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

2020ko hirugarren hiruhilekoan, obra handiko lizentzien kopurua apur bat jaitsi da Euskal Autonomia Erkidegoan aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta; urtetik urterako terminoetan beherakada handiagoa izan da.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2020ko hirugarren hiruhilekoan obra handiko 671 lizentzia eman zituzten guztira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek. Emaizta horiek 2020ko bigarren hiruhilekokoak baino apalagoak dira. Izan ere, 30 lizentzia gutxiago eman dira, eta horrek esan nahi du, datu erlatiboak hartuta, % 4,3ko jaitsiera izan dela. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, jarduerak beherakada nabarmenagoa izan du: 150 lizentzia gutxiago onartu dira, hau da, % 18,3ko beherakada izan da.

Obra handiko lizentzien ia erdiak Bizkaian eman dira (% 48,0), 322 guztira. Ondoren, Araban, 185 lizentzia eman dira; hau da, baimen guztien % 27,6. Gainerako 164 lizentziak, guztien % 24,4, Gipuzkoan eman dira.

2020ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, Bizkaian eta Gipuzkoan behera egin du obra handiko lizentzien kopuruak. Araban, berriz, % 5,1 egin du gora (9 lizentzia gehiago). Bizkaian 36 lizentzia gutxiago eman dira (% 10,1eko beherakada). Gipuzkoan jaitsiera txikiagoa izan da: 3 lizentzia gutxiago (% 1,8ko beherakada termino erlatiboetan).

Urte arteko emaitzei dagokienez, negatiboak izan dira, oro har, lurralde historiko guztietan. Araban, 16 lizentziako beherakada absolutua gertatu da 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 8,0ko beherakada erlatiboa. Bizkaian, urtetik urterako beherakada 117 lizentziakoa izan da, eta epealdiko beherakada erlatiboa, berriz, % 26,7koa. Gipuzkoan, aldiz, 17 lizentziako beherakada gertatu da kopuru absolutuetan; hortaz, % 9,4ko beherakada izan da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Ohikoa denez, 2020ko hirugarren hiruhilekoan emandako lizentzia gehienak birgaitzeko obrekin lotuta daude (% 84,2).

2020ko hirugarren hiruhilekoan, **emandako lizentzia-moten** arabera banaketan, aurreko hiruhilekoetako joera berari eutsi zaio. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehatz-mehatz, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 84,2 izan dira; lizentzien % 13,6 eraikin berrietarako izan dira (bi hiruhileko aurretik izandako datutik hurbil: % 13,5 2020ko lehenengo hiruhilekoan), eta % 2,2 eraispenetarako lizentziak izan dira. Kopuru absolutuak honako hauek dira: 565 birgaitze-lizentzia (2020ko bigarren hiruhilekoan baino 27 gutxiago, % 4,6ko beherakadarekin), eraikuntza berriko 91 lizentzia (aurreko hiruhilekoan baino 8 lizentzia gutxiago, % 8,1eko beherakadarekin), eta 15 eraispen-lizentzia, bigarren hiruhilekoan baino 5 gehiago (% 50).



Eraikuntza berriko etxebizitzetarako lizentziak eta birgaitzeko eraikinetarakoak modu desberdinean banatzen dira emandako lizentzien kopuru osoan, aztertutako lurralde historikoaren arabera. Araban eta Gipuzkoan eraikuntza berriko lizentziek Bizkaian baino pisu erlatibo handixeagoa dute: emandako obra handiko lizentzia guztien % 17,8 eta % 14,0 hurrenez hurren; Bizkaian, berriz, % 10,9 dira. Birgaitzeko obra handiko lizentziei dagokienez: Bizkaian, birgaitzeko lizentziak emandako baimen guztien % 87,9 dira; Araban, aldiz, proportzio hori % 76,8 da, eta Gipuzkoan, % 85,4.

1. Taula Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2020ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	671	100,0	-30	-4,3	-150	-18,3
	Oinplano berria	91	13,6	-8	-8,1	-26	-22,2
	Birgaitzea	565	84,2	-27	-4,6	-126	-18,2
	Eraispena	15	2,2	5	50,0	2	15,4
Araba	Guztira	185	100,0	9	5,1	-16	-8,0
	Oinplano berria	33	17,8	6	22,2	-4	-10,8
	Birgaitzea	142	76,8	-4	-2,7	-17	-10,7
	Eraispena	10	5,4	7	233,3	5	100,0
Bizkaia	Guztira	322	100,0	-36	-10,1	-117	-26,7
	Oinplano berria	35	10,9	-6	-14,6	-10	-22,2
	Birgaitzea	283	87,9	-30	-9,6	-106	-27,2
	Eraispena	4	1,2	0	0,0	-1	-20,0
Gipuzkoa	Guztira	164	100,0	-3	-1,8	-17	-9,4
	Oinplano berria	23	14,0	-8	-25,8	-12	-34,3
	Birgaitzea	140	85,4	7	5,3	-3	-2,1
	Eraispena	1	0,6	-2	-66,7	-2	-66,7

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa

1. grafikoa Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa



2020ko bigarren hiruhilekotik hirugarrenera arteko aldian, eraikin berrietarako lizentziek gora egin dute Araban (% 22,2, 6 lizentzia gehiago). Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, behera egin dute: Bizkaian % 14,6 (6 lizentzia gutxiago), eta Gipuzkoan are gehiago, % 25,8 (hau da, aurreko hiruhilekoan baino 8 lizentzia gutxiago). Birgaitzeko obrei dagokienez, Gipuzkoan bakarrik egin du gora lizentzien kopuruak (+% 5,3); Araban beherakada txikia izan du (–% 2,7), eta Bizkaian, handiena: –% 9,6.

Urtetik urterako bilakaerari erreparatuta, obra berriko lizentziek % 22,2ko jaitsiera izan dute EAE osoan, 2019ko hirugarren hiruhilekoan baino 26 lizentzia gutxiago eman baitira. Bizkaian, jaitsiera bera izan da termino erlatiboetan, urtean zehar 10 lizentzia gutxiago izan ondoren. Araban, urtetik urterako jaitsiera apalagoa izan da: 4 lizentzia gutxiago (–% 10,8). Gipuzkoan, berriz, nabarmenagoa: –% 34,3 termino erlatiboetan, hau da, 12 lizentzia gutxiago termino absolutuetan.

Halaber, 2019ko 3. hiruhilekotik 2020ko 3. hiruhilekora bitartean, birgaitzeko lizentzien kopuruak behera egin du EAEn (–% 18,2). Beherakada hori hiru lurraldeetan gertatu da, baina batez ere Bizkaian (–% 27,2, hau da, 106 lizentzia gutxiago). Araban jaitsiera % 10,7koa izan da (17 lizentzia gutxiago), eta Gipuzkoan % 2,1ekoa (3 lizentzia gutxiago).

Urtetik urterako aldakuntza metatuei dagokienez, 2020ko hirugarren hiruhilekoan ere lizentziek beherakada izan dute orokorrean, batez ere birgaitzeko lizentzien kopuruan izandako jaitsiera nabarmenaren ondorioz.

Urteko datu metatu horiek 2019ko laugarren hiruhilekoaren eta 2020ko hirugarrenaren artean emandako lizentzia guztiak hartzen dituzte kontuan, eta aurreko urteko hiruhileko horietako urteko datu metatuekin alderatzen dira (2018ko laugarren hiruhilekotik 2019ko hirugarrenera emandako lizentzien kopuruekin). Kopuru absolutuetan, oraingoan 503 lizentzia gutxiago izan dira (% 15,0 gutxiago). Jaitsierarik nabarmenenak birgaitzeko lizentzietan gertatu da (% 15,1eko beherakada, 428 lizentzia gutxiago), eta eraikin berrietarako lizentzietan (azken horietan ere % 15,0koa, baina 67 lizentzia gutxiago izan direlako). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien beherakada txikiagoa izan da balio absolutuetan (8 lizentzia gutxiago), baina termino erlatiboetan antzeko jaitsiera izan dute: –% 11,6.

2020ko bigarren hiruhilekoko urteko datu metatuen bilakaera negatiboa da hiru lurraldeetan. Lizentzien beherakadak Bizkaian izan du eraginik handiena, termino erlatiboetan.

Urte arteko datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta, datuak negatiboak dira hiru lurraldeetan, baina hein ezberdinean.

Arabian, azken urtean metatutako lizentzien kopurua % 15,3 txikiagoa izan da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (128 lizentzia gutxiago). Eraikin berrietarako lizentziek behera egin dute (–% 5,3, 7 lizentzia gutxiago); birgaitzeko lizentziek jaitsiera handiagoa izan dute (–% 17,1, 116 lizentzia gutxiago), eta eraispenetarako lizentziak 5 gutxiago izan dira (–% 19,2).

2. Taula Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2019ko 4. Hiruhil. 2020ko 3. hiruhil		Metatua 2018ko 4. Hiruhil. 2019ko 3. hiruhil		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	2.849	100,0	3.352	100,0	-503	-15,0
	Oinplano berria	381	13,4	448	13,4	-67	-15,0
	Birgaitzea	2.407	84,5	2.835	84,6	-428	-15,1
	Eraispena	61	2,1	69	2,1	-8	-11,6
Araba	Guztira	709	100,0	837	100,0	-128	-15,3
	Oinplano berria	125	17,6	132	15,8	-7	-5,3
	Birgaitzea	563	79,4	679	81,1	-116	-17,1
	Eraispena	21	3,0	26	3,1	-5	-19,2
Bizkaia	Guztira	1.475	100,0	1.795	100,0	-320	-17,8
	Oinplano berria	149	10,1	186	10,4	-37	-19,9
	Birgaitzea	1.307	88,6	1.585	88,3	-278	-17,5
	Eraispena	19	1,3	24	1,3	-5	-20,8
Gipuzkoa	Guztira	665	100,0	720	100,0	-55	-7,6
	Oinplano berria	107	16,1	130	18,1	-23	-17,7
	Birgaitzea	537	80,8	571	79,3	-34	-6,0
	Eraispena	21	3,2	19	2,6	2	10,5

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa

2. grafikoa Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko metatuaren datuak 2020ko 3. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta ehunekoa bertikalak)




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa

Gipuzkoan, 55 lizentzia gutxiago izan direnez, % 7,6 egin du behera orotara obra-lizentzien urtetik urterako kopuru metatuak. Balio erlatiboetan, gainbeherarik handiena (–% 17,7koa, 23 lizentzia gutxiago) eraikuntza berriko lizentzietan gertatu da. Birgaitzeko lizentziek % 6,0 egin dute behera (34 lizentzia gutxiago, balio absolutuetan); eraispen-lizentziak, berriz, 2 gehiago izan dira (% 10,5eko hazkundera), aurreko edizioko ildoari jarraikiz.

Bizkaian izan du bilakaerarik txarrena lizentzien kopuruak, betiere termino erlatiboetan (–% 17,8, hau da, 320 lizentzia gutxiago). Obra-motaren arabera, eraikin berrietarako lizentzien kopuruak % 19,9 egin du behera urtetik urtera (37 lizentzia gutxiago), birgaitzeko lizentziak ere gutxiago izan dira (% 17,5eko jaitsiera, 278 lizentzia gutxiago), eta eraispen-lizentziak, 5 gutxiago (–% 20,8).

3. grafikoa Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA

Eraikin berrietarako lizentzien eta birgaitzeko obra handiko lizentzien kopuruek beheranzko joera izan dute (bai hiruhilekoari begira eta bai urtetik urtera), azken erabilera edozein dela ere (bizitegi-erabilera edo bizitegirako ez dena).

2020ko hirugarren hiruhilekoan, obra handiko 656 lizentzia eman dira, eraikin berriak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (518, guztien % 79,0) **bizitegi-erabilerako** proiektuei lotu zaizkie, eta gainerako 138ak, guztien % 21,0, bizitegirako ez diren erabileretarako proiektuei¹.

2020ko hirugarren hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez** diren obra-lizentziak dagokien sektorearen arabera aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektoreko erabilerakoak nabarmendu direla (lizentzia guztien % 68,1), ohikoa denez. Industriaren eta energiaren sektorera beste % 20,3 bideratu da, eta % 11,6, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

2020ko bigarren hiruhilekotik hirugarrenera lizentziek izan duten **hiruhilekoko bilakaerari** erreparatuta, % 5,1 egin du behera emandako lizentzien kopuruak (35 gutxiago). Kontuan hartu diren bi erabilerei eragiten die beherakadak: bizitegi-erabilerarekin lotutako lizentziek % 4,8 egin dute behera (26 lizentzia gutxiago, termino absolutuetan), eta bizitegirako ez diren erabilerei dagozkienek, % 6,1 (9 lizentzia gutxiago).

2020ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzietan gertatu den beherakada lotuta dago zerbitzuen sektorean izandako lizentzia kopuruaren jaitsierarekin, 13 gutxiago izan baitira (–% 12,1), eta horrek gainerako bi sektoreetan izandako igoera txikiak gainditu ditu: lizentzia bat gehiago lehen sektorean (+% 6,7) eta 3 lizentzia gehiago bigarrean (+% 12,0).

2019ko eta 2020ko hirugarren hiruhilekoen arteko **urteko** alderaketa negatiboa da termino erlatiboetan, ia hein berean bizitegi-erabilerarako lizentzietan (–% 18,4) eta bizitegi erabilerarako ez diren lizentzietan (–% 20,2).

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik bazter geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat tramitatu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla (bizitegirakoak eta bizitegirakoak ez direnak).

3. Taula Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2020ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
Guztira	656	100,0	-35	-5,1	-152	-18,8
Bizitegia	518	79,0	-26	-4,8	-117	-18,4
Bizitegiar bestelakoa	138	21,0	-9	-6,1	-35	-20,2
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	16	11,6	1	6,7	-4	-20,0
• Industria eta energia	28	20,3	3	12,0	-17	-37,8
• Zerbitzuak	94	68,1	-13	-12,1	-14	-13,0

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa

4. grafikoa Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa

2019ko eta 2020ko hirugarren hiruhilekoen artean, bizitegirako ez diren lizentziak emateko barne-dinamikari dagokionez, atzerakadak izan dira jarduera-sektore guztietan. Atzerakadarik handiena industriaren eta energiaren sektorean gertatu da (-% 37,8, 17 lizentzia gutxiago); ondoren, lehen sektorean (-% 20,0, 4 lizentzia gutxiago), eta, azkenik, zerbitzuen sektorean (-% 13,0, 14 lizentzia gutxiago).

Urte arteko kopuru metatuetan, EAEn behera egin dute emandako lizentziek, bi erabilera-motetan, bai bizitegikoan eta bai bizitegikoa ez den erabileran.

2019ko laugarren hiruhilekotik 2020ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako urtetik urterako kopuruak alderatzen baditugu aurreko urteetako hiruhileko horietan izandako kopuruekin, antzeko beherakada ikusten da bizitegi-erabilerako lizentzietan (-% 15,2) eta bizitegikoa ez den erabilerakoetan (-% 14,8).

4. Taula Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)


OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 2019ko 4 hiruhil. 2020ko 3. Hiruhil.		Metatua 2018ko 4 hiruhil. 2019ko 3. Hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Guztira	2.788	100,0	3.283	100,0	-495	-15,1
Bizitegia	2.183	78,3	2.573	78,4	-390	-15,2
Bizitegiak bestelakoa	605	21,7	710	21,6	-105	-14,8
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	44	7,3	83	11,7	-39	-47,0
• Industria eta energia	140	23,1	200	28,2	-60	-30,0
• Zerbitzuak	421	69,6	427	60,1	-6	-1,4

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2020ko hirugarren hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dutenez, lizentzien kopuruak beheranzko bilakaera izan du hiru sektoreetan. Termino erlatiboetan, beherakada nabarmena izan da industriaren eta energiaren sektorean (-% 30,0) eta lehen sektorean -% (47,0), eta askoz apalagoa hirugarren sektorean edo zerbitzuenean (-% 1,4).

5. grafikoa Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa



3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

Bizitegi-erabilerarako emandako obra handiko lizentziei dagokien etxebizitza-bolumenak behera egiten jarraitu du. Aurreikusitako etxebizitza berrien kopuruan izandako beherakadak birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren kopuruaren gorakada gairatzen du. Egoera bera errepikatzen da aurreko hiruhilekoko datuekin eta aurreko urteko hiruhileko berekoekin alderaketa eginez gero.

2020ko hirugarren hiruhilekoan bizitegi-erabilerarako emandako obra handiko 518 lizentziek 920 etxebizitzarekin zerikusia duten jarduketak dakartzate berekin (aurreko hiruhilekoan baino 43 gutxiago). Etxebizitza horietatik, 616 eraikuntza berriko jarduketekin daude lotuta (lizentzia guztien % 67,0); gainerako 304 etxebizitzak birgaitzeko prozesuekin dute lotura².

Zehaztu behar da atal honetan sartzen diren etxebizitza berrien bolumenak gorabehera handiak izan ditzakeela hiruhilekoan, sustapenen kopuruaren arabera. Hori gogoan hartuta, beherakada hauteman da 2020ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean, EAEn aurreikusitako etxebizitza berrien kopuruan (-% 14,2). 2019ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2020ko hiruhileko beraren arteko urtetik urterako kopuruari begiratuta, galera nabarmena izan da eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspenean, % 28,3koa, hain zuzen (243 etxebizitza gutxiago).

Birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren kasuan, aipatutako epeko kopuruak aztertuta, balio batzuk ondorioztatu dira: etxebizitzaren kopuruak gora egin du, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta 59 unitate gehiago baitira (+% 24,1), eta duela hamabi hilabete baino 51 unitate gehiago (+% 20,2).

2020ko bigarren hiruhilekoko azterketan ez bezala, oraingoan ikusi da jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin duela gora Araban eta Gipuzkoan. Bizkaian, berriz, beherakada handia izan da aurreko hiruhilekoan bildutako datuekin alderatuta.

2020ko hirugarren hiruhilekoan, **Araban** 261 etxebizitza daude aurreikusitako jarduketei lotuta; horietatik, % 65,5 eraikuntza berrikoa da (171 etxebizitza). Lurralde horretan, nabarmen handitu da jarduketei lotutako etxebizitza berrien kopurua aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 151,5), eta gorakada handia izan da baita 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta ere (+% 81,9).

Birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruari dagokionez (90 etxebizitza), bolumenak hobera egin du 2020ko bigarren hiruhilekotik (+% 73,1), eta nabarmen gora, urtetik urterako terminoetan (+% 130,8).

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaketa ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiagoko etxebizitza-eraikinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obrak egiten diren. Ukitutako etxebizitza birgaituen kontaketa, honako esku-hartze hauek hartzen dira aintzat soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, kontuan hartzen da egindako zatiketa edo bat-egite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza kopurua).

Bizkaian 260 etxebizitzarekin lotutako jarduketak gauzatu dira 2020ko hirugarren hiruhilekoan. Eraikuntza berriko 161 etxebizitza egitea aurreikusten da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta ikuspegi oso ezkorra agerian utzita (–% 70,2ko aldakuntza, 379 etxebizitza gutxiago). Urtetik urterako terminoetan, datua egonkorragoa da.

Birgaitzeko jardueri dagokienez, nolabaiteko beherakada gertatu da: aurreko hiruhilekoan baino 4 etxebizitza gutxiago (–% 3,9), eta duela urtebeteko hiruhileko berean baino 18 etxebizitza gutxiago (–% 15,4).

Gipuzkoan, azkenik, 399 etxebizitzaren inguruko jarduketak gauzatu dira, eta etxebizitza horietatik 284 eraikuntza berrikoak izan dira. 2020ko bigarren hiruhilekotik hirugarrenera, gorakada handia izan da aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan, bai eraikuntza berriko jarduketetan (+% 158,2) eta bai birgaitzekoetan (+% 27,8). Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, atzerakada handia izan da etxebizitza berrien kopuruan (–% 52,8). eta apur bat gora egin dute birgaituko diren etxebizitzek (+% 18,6).


5. Taula Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2020ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	920	100,0	-43	-4,5	-192	-17,3
	Oinplano berria	616	67,0	-102	-14,2	-243	-28,3
	Birgaitzea	304	33,0	59	24,1	51	20,2
Araba	Guztira	261	100,0	141	117,5	128	96,2
	Oinplano berria	171	65,5	103	151,5	77	81,9
	Birgaitzea	90	34,5	38	73,1	51	130,8
Bizkaia	Guztira	260	100,0	-383	-59,6	-20	-7,1
	Oinplano berria	161	61,9	-379	-70,2	-2	-1,2
	Birgaitzea	99	38,1	-4	-3,9	-18	-15,4
Gipuzkoa	Guztira	399	100,0	199	99,5	-300	-42,9
	Oinplano berria	284	71,2	174	158,2	-318	-52,8
	Birgaitzea	115	28,8	25	27,8	18	18,6

6. grafikoa Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa



Urte arteko kopuru metatuak aztertuta, EAEn behera egin du aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak; bai etxebizitza berrienak, bai birgaitzeko etxebizitzak.

Aurreikusitako etxebizitzaren hiruhilekoko kopuruak izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, emaitzen **urteko dinamika metatua** aztertzea komeni da. Horrela jardunez gero, 2020ko hirugarren hiruhilekora arte bizitegi-erabileran metatutako urteko jardueraren arabera, aurreikusita dauden jarduketek 4.141 etxebizitzari eragiten diete guztira (3.046 eraikuntza berrikoak eta 1.095 birgaitu egingo direnak). Hala, % 35,1eko beherakada gertatu da (2.244 etxebizitza gutxiago) 2019ko hirugarren hiruhilekoraino metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Jaitiera nabarmena izan da batez ere eraikuntza berriko jarduketetan (-% 41,5). Birgaitzeekin lotutakoetan ere behera egin du, neurri txikiagoan bada ere (-% 7,1).

6. Taula Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

NÚMERO DE VIVIENDAS PREVISTAS		Metatua 2019ko 4. Hiruhil. 2020ko 3. Hiruhil.		Metatua 2018ko 4. Hiruhil. 2019ko 3. Hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	4.141	100,0	6.385	100,0	-2.244	-35,1
	Oinplano berria	3.046	73,6	5.206	81,5	-2.160	-41,5
	Birgaitzea	1.095	26,4	1.179	18,5	-84	-7,1
Araba	Guztira	1.070	100,0	1.005	100,0	65	6,5
	Oinplano berria	814	76,1	764	76,0	50	6,5
	Birgaitzea	256	23,9	241	24,0	15	6,2
Bizkaia	Guztira	1.955	100,0	3.103	100,0	-1.148	-37,0
	Oinplano berria	1.496	76,5	2.547	82,1	-1.051	-41,3
	Birgaitzea	459	23,5	556	17,9	-97	-17,4
Gipuzkoa	Guztira	1.116	100,0	2.277	100,0	-1.161	-51,0
	Oinplano berria	736	65,9	1.895	83,2	-1.159	-61,2
	Birgaitzea	380	34,1	382	16,8	-2	-0,5

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa

7. grafikoa Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa

Lurraldeen artean desberdintasunak daude etxebizitzaren arloan aurreikusitako jarduketetan. Urteko metatutan izandako aldakuntzari erreparatuta, Arabak profil lauagoa erakusten du, 65 etxebizitzako gorakada txikiarekin (+% 6,5): 50 lizentzia eraikuntza berrirako dira, eta 15, etxebizitzak birgaitzeko. Gipuzkoan eta Bizkaian kopuruak nahiko negatiboak dira, termino erlatiboetan, etxebizitza berriei dagokienez.

Etxebizitza berrien eraikuntzan, jarduerak gorakada txikia izan du Araban (+% 6,5), baina Bizkaian % 41,3 egin du behera (1.051 etxebizitza gutxiago), eta are gehiago Gipuzkoan (-% 61,2, 1.159 etxebizitza gutxiago).

Birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruak gora egin du Araban (+% 6,2), behera Bizkaian (-% 17,4), eta Gipuzkoan ia ez da aldatu (-% 0,5, 2 etxebizitza gutxiago).



4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAeko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) helburu orokorra Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den jakitea da. Udalek emandako obra handiko lizentzietatik abiatuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaitzea edo eraistea), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak ezagutu nahi dira.

Definizioak:

Obra handiko lizentzia: Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua lizentzia-eskaera hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin bat datorrela egiaztatzea da.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

- a. **Oin berriko obra:** Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.
- b. **Birgaitze-obra:** Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraipen partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.



Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzorua gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

c. Eraispén obra: Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



COVID-19 krisiaren eragina

Hiruhileko honetan ere, kontuan hartzekoak dira COVID-19aren pandemiak kutsatze-olde berrian ekar ditzakeen ondorioak, eta hiruhilekoan izandako bilakaera. Litekeena da egoerak, berriro ere, eragina izatea 2020ko hirugarren hiruhilekoan izandako lizentzien beherakadan (–% 18,3 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta), abuztuan –% 28,7ra iritsita. Irailean joera hori apur bat apaldu da (–% 12,6).

7. Taula Obra handiko lizentzien kopurua, emandako hilabetearen arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhileko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2019		2020		Aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
2020ko 1. hiruhilekoa	Guztira	846	100	711	100	-135	-16,0
	Urtarrila	286	33,8	264	37,1	-22	-7,7
	Otsaila	300	35,5	258	36,3	-42	-14,0
	Martxoa	260	30,7	189	26,6	-71	-27,3
2020ko 2. hiruhilekoa	Guztira	871	100	701	100	-170	-19,5
	Apirila	292	33,5	164	23,4	-128	-43,8
	Maiatza	331	38,0	238	34,0	-93	-28,1
	Ekaina	248	28,5	299	42,7	51	20,6
2020ko 3. hiruhilekoa	Guztira	821	100	671	100	-150	-18,3
	Uztaila	371	45,2	307	45,8	-64	-17,3
	Abuztua	181	22,0	129	19,2	-52	-28,7
	Iraila	269	32,8	235	35,0	-34	-12,6

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 3. hiruhilekoa



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2020ko 3. hiruhilekoa

Emaizta nagusiak

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	10
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK	14
TAULEN AURKIBIDEA	17
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	17

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa .	3
2. Taula	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. Taula	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa	8
4. Taula	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .	9
5. Taula	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa	11
6. Taula	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	12
7. Taula	Obra handiko lizentzien kopurua, emandako hilabetearen arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa	16

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa .	3
2. grafikoa	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko metatuaren datuak 2020ko 3. hiruhilekoan	5
3. grafikoa	Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2020	6
4. grafikoa	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa	8
5. grafikoa	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .	9
6. grafikoa	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoa	11
7. grafikoa	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	13

Informazio gehiagorako:

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa Saila Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia kalea, 1, 01010 Gasteiz

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

Webgunea: www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak

www.euskadi.eus/lurralde-estatistikak

www.euskadi.eus/r41-ovse110x/eu/

Helbide elektronikoa: estadísticas-vivienda@euskadi.eus